

eman ta zabal azar:



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKOA  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA

# BIRGAITZE, ZAHARBERRITZE ETA KUDEAKETA MASTERRA

**Eraikitako ondarearen  
eta Eraikinen**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

---

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

---

Eraikitako ondarea eta bere kontserbazioa bertako gizartearen erakusgarri dira. Kontserbatu beharreko ondasun ukiezin modura duten berezko balioaz gain, lehen mailako elementu dinamizatzaila dira gizartearen alor guztietan. Sortzen duen itzulkina kontuan hartzeko modukoa da, aberastasun ekonomikoa izateaz gain, hirien birsortzearen eta jasangarritasunaren erakusgarri delako. Ondorioz, ondasun nabarmena da. Eraikitako ondarearen eta aurretik zeuden eraikinen birgaikuntza, zaharberritze eta kudeaketa integraleko masterrak eraikitako ondarea xede duen edo barne hartzen duen jarduketa orotan kontuan hartu beharreko gai gehienak lantzen ditu. Arkitekturaren alorreko gaiak, nabarmenki teknologiararen alorrekoak direnak eta beste

diziplina batzuetakoak lantzen dira, esate baterako, ekonomia, zuzenbidea eta soziologia.

Masterraren helburu nagusia eraikitako ondarea zaharberritzeko proiektu integralak garatzeko orduan ikerketa eta berrikuntza aurrera eramateko eta ondare horren balioa inguruan zabaltzeko gai diren profesionalak prestatzea da. Diziplina anitzeko prestakuntza eskainiko zaie horretan gaitzeko eta sektoreko enpresentzat, mundu akademikoarentzat eta oro har gizartearentzat berrikuntzarako aukerak identifikatzeko eta garatzeko gaitasuna hartuko dute horrela.

Titulu bikoitza lortzeko aukera ematen du, Montpellierreko (Frantzia) Arkitektura Goi-eskola Nazionaleko Architecture et Patrimoine Contemporaine masterrarekin.

---

## SARBIDEA

---

Arkitektura edo Arkitektura Teknikoa. Enpresa Zientzietako, Arteko, Ingurumen Zientzietako, Kultura Ondasunen

Kontserbazio eta Zaharberrikuntzako edo Zuzenbideko gradua, lizentzia edo diploma.

---

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Lanbidean aritzea autonomo gisa edo teknologia zentroetan, sektoreko enpresetan nahiz Administrazioan kontratatuta.

Masterrak zuzenean aukera ematen du doktoregoa egin ahal izateko espezializazio-arlo berean.

---

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

---

<b>Eskolak emateko lekua:</b>	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (Donostia) eta Letren Fakultatea (Vitoria-Gasteiz).
<b>Irakaskuntza mota:</b>	Eskolan bertakoa.
<b>Hizkuntza:</b>	Gaztelania.
<b>Gutxi gorabeherako prezioa:</b>	1.950-2.150 euro.
<b>Egutegia:</b>	Urritik maiatzera, arratsaldez.

---

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

---

60 ECTS / ikasturte 1

<b>Nahitaezko Gaiak</b> 15 ECTS kreditu	<b>Hautazko Gaiak</b> 25 ECTS kreditu	<b>Proiektuak / Ikerketa-lanak</b> 20 ECTS kreditu	<b>Guztira</b> 60 ECTS kreditu
--	--	---	-----------------------------------

---

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

---

### Nahitaezkoak:

- Zaharberritze eta esku-hartze kontzeptuak arkitekturan (3 ECTS).
- Iraganeko arkitekturaren eta gune historikoen ezagutza (9 ECTS).
- Metodologia zientifikoa ikerketa proiektuetan eta jardunbide profesionala plan zuzentzaileetan (3 ECTS).

### Hautazkoak: 3 ECTS

- Arkitekturaren arkeologia.
- Ondarearen katalogazioa, babesa, arautegiak eta legeria.
- Ondarea eta ekonomia.
- Egiturazko eta egituraren karakterizazioa: aurretiko analisiak.
- Argiztapena, soinua eta kolorea birgaitze lanean.
- Egituren sendotze-teknikak.
- Aurretiko eraikuntzen eta oraintsuko ondarearen birgaitza.

---

## HARREMANETARAKO

---

### Arduraduna:

Santiago Sánchez Beitia

### Posta elektronikoa:

santiago.sanchez@ehu.eus

